# OZEN OZ

## Ozen irakurtzen

## LH4

---

# KENSUKEREN MUNDUA

MICHAEL MORPURGO



# Irakaslearen gida

# AURKIBIDEA

**AURKIBIDEA** 2

**1. SARRERA** 3

**2. IRAKASLEARENTZAKO IKAS-EGOERAREN GIDA** 5

2.1. AHOTS GORA IRAKURTZEAZ 5

2.2. IKAS-EGOERAREN GIDA 6

A. INPLIKATURIKO IKASGAIAK 6

B. SAIO-KOPURUA 6

C. IKAS-EGOERAREN MARKOA 6

Testuingurua 6

Abiapuntua 7

Azken ekoizpena 7

D. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA 8

Proposamenaren xedea 8

Curriculumean oinarritutako argudiaketa 8

Helburu didaktikoak 8

2.3. JARDUEREN SEKUENTZIA 14

A. HASIERAKO FASEA 14

B. GARAPEN-FASEA 18

LEHEN KAPITULUA: PEGGY SUE 18

BIGARREN KAPITULUA: URA, URA BAINO EZ 20

HIRUGARREN KAPITULUA: NABIGAZIO-EGUNKARIA 21

LAUGARREN KAPITULUA: GIBOIAK ETA MAMUAK 23

BOSGARREN KAPITULUA: NI, KENSUKE 24

SEIGARREN KAPITULUA: ABUNAI! 26

ZAZPIGARREN KAPITULUA: ISILTASUN IZUGARRI HARK ZIOENA 27

ZORTZIGARREN KAPITULUA: NAGASAKIN, DENAK HILAK 29

BEDERATZIGARREN KAPITULUA: DORTOKEN GAUA 32

C. AZKEN FASEA 34

HAMARGARREN KAPITULUA: HILTZAILEAK DATOZ 34

EPILOGOA 36

2.4. METODOLOGIA 38

A. PRINTZIPIOAK 38

B. ANTOLAKETA 38

C. BALIABIDEAK 39

2.5. EBALUAZIO-PROZESUA 43

**3. ERANSKINAK** 44

I. ERANSKINA: EBALUAZIO-TXANTILOIA 44

II. ERANSKINA: IKASKETA KOOPERATIBOKO DINAMIKA 51

III. ERANSKINA: TESTU-MOTEN EZAUGARRIAK 57

IV. ERANSKINA: EMOZIOAK IDENTIFIKATZEN 59

# 1. SARRERA

Ahots gora irakurtzea ez da edozein txikikeria, oso kontu sakona da. Maite duzunari irakurtzea egin diezaiokezun oparirik xumeena eta hoberena da.

COX, Meghan (2020)*. La magia de leer en voz alta. Urano, Madril, 2020.*

Ozen Oz bildumako *Kensukeren mundua* nobela lantzeko gida da honako hau, *Ikaslearen liburuxka*ri lotua. Liburu hori Lehen Hezkuntzako 4. mailan irakurtzen da. Gida honetako proposamenak eta azalpenak edozein irakaslek erabil ditzake nobelak eskaintzen dituen gaiak lantzeko.

Bekobenta Herri Eskolan, 2008. urtean hasi ginen Irakurketa Proiektua garatzen. Hainbat urrats egin ditugu ibilbide horretan, eta, dagoeneko, Irakurketa Proiektua –eta haren barruan bereziki Ozen Oz– eskolako indargune eta ardatz garrantzitsua bihurtu da. Proiektu honen azken xedea umeak irakurzaletzea da, eta eta jakin dakigu ezinbestekoa dela ikasleari ahots gora irakurtzea hori lortzeko: Imanol Mercerok esaten duen bezala, “umea belarritik hasten da irakurtzen”.

Ahots gora irakurtzeak duen garrantziaz jabetuta, eta hausnarketa sakona egin ondoren, ikasleekin saiakera bat egitea erabaki genuen *Ozeko aztia* liburuarekin (hortik dator ikasmaterial honen izena, Ozen Oz). Irakurraldi hura hain izan zen arrakastatsua, beste maila batzuetan ere liburu anitz irakurtzea erabaki baikenuen.

Dagoeneko hainbat liburu aukeratu ditugu Ozen Oz bildumarako, ikasmailaka sailkatuta. Aukeraketa egiteko, ikasleen ibilbide literarioa, kanona eta gustuak izaten ditugu kontuan. Liburu horietako batzuk irakurtze hutsak ematen duen plazererako irakurtzen dira; beste batzuk, plazerezko irakurketaz gain, ikas-egoera bilakatzen dira, funtsezko konpetentziak lantzeko aukera eskainiz, *Kensukeren mundua* liburua kasu. Momentuz, honako hauek dira aukeratutako liburuak:

- LH1: *Amilami; James y el melocotón gigante*
- LH2: *Dr. Dolittle; Ozeko aztia; Aladdin*
- LH3: *Sorginak; El gato que enseñó a volar a la gaviota*
- LH4: *Sinbad marinela; Kensukeren mundua*
- LH5: *Orzowei; Munduari bira 80 egunetan*
- LH6: *Gabon kanta; Tom Sawyerren abenturak eta El reloj mecánico*

*Kensukeren munduan* liburuarekin atondutako ikas-egoerak bi euskarri ditu: *Irakaslearen gida* eta *Ikaslearen liburuxka*.

***Irakaslearen gida*** sei ataletan dago banatuta:

1. **Ahots gora irakurtzeaz**. Ahots gora irakurtzeko aholkuak jasotzen dira dekalogo batean, ahots gora irakurtzea baita proiektuaren funtsa.
2. **Irakaslearentzako ikas-egoeraren gida**. Marko teorikoa azaltzen da lau azpiataletan sailkatuta: inplikaturiko ikasgaiak, saio kopurua, ikas-egoeraren markoa eta proposamenaren justifikazioa.
3. **Jardueren sekuentzia**. Hainbat jarduera proposatzen dira, hiru fasetan banatuta –hasierako fasea, garapen-fasea eta azken fasea–. Seguru asko, atal hau izango da erabiliena, jarduerak baitira eguneroko lanean irakasleok gehien erabiliko ditugunak. Jarduera bakoitzean, dagozkion ebaluazio-adierazleak eta ebaluazio-tresnak zehaztu dira.
4. **Metodologia**. Ikas-egoerak oinarri duen metodologia azaltzen da: zer printzipiotan oinarritzen den, nola antolatuko den eta zer baliabide erabiliko diren.
5. **Ebaluazio-prozesua**. Atal honetan zehazten da ikas-egoera osoa nola eta zein mementotan ebaluatuko den, eta ebaluatzeko zer tresna erabiliko diren.
6. **Eranskinak**. Jarduera batzuetan, material osagarria dago erantsita.

***Ikaslearen liburuxkan***, *Irakaslearen gidan* zehazten diren jarduera batzuk aurrera eramateko fitxak daude. Liburuxka hori gida honetako baliabide materialetan estekatuta dago.

Proiektuaren ardatza dira sei atal horiek. Haietan proposatutako jarduerez gain, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo lan egiteko jarduerak ere badira, *Irakaslearen gidan* aipatzen direnak:

- **Irakurlearen txokoa** edo tertulia literarioa.
- Gaiarekin lotutako **Liburuen kutxa** edo irakurketa librea.
- Eskolatik kanpoko jarduerak: zinemara, museo batera joatea...

Programazio hau egiteko, *Hezkuntza-eredu pedagogikoaren marko berria*n oinarritu gara, zeinak *Heziberri 2020* ereduan duen jatorria. **Heziberri 2020 dokumentuan zehar-konpetentziak eta diziplina barneko konpetentziak zehazten ziren, eta, marko berrian, funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak zehazten** dira, Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioari (2018) jarraituz.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Igor Idoeta Irazabal Markina-Xemeingo Udal Bibliotekako arduraduna, haren lanari esker egin baitu aurrera, hein handi baten, gure proiektuak. Haren bitartez aukeratu eta eskuratu ditugu literatura-obra asko; bera gabe ezinezkoa izango zatekeen gure irakurketa-proiektua garatzea eskolan ditugun baliabideekin. Beraz, gure eskerrik beroena harentzat.

# 2. IRAKASLEARENTZAKO IKAS-EGOERAREN GIDA

Proposamen honetan, 4. mailako tutoreak *Kensukeren mundua* nobela irakurriko die ikasleei gelan hiruhileko batean, eta, nobelak aurrera egin eta ikasleak pertsonaiaren munduan murgildu ahala, askotariko gaiak jorratuko dira; hau da, **diziplinarteko ikas-egoera** bat landuko da.

## 2.1. AHOTS GORA IRAKURTZEAZ

Ahots gora irakurtzea ez da edozelan egiteko ariketa, bat-batean egitekoa. Aitzitik, aldez aurretiko prestaketa eta hausnarketa eskatzen duen ariketa kontzientea da, metodoa eskatzen duena. Hori dela-eta, irakasleei ahots gora irakurtzeari buruzko dekalogo bat proposatzen zaie, ikasleei ahots gora irakurtzen trebatzen lagundu diezaieten.

**AHOTS GORA IRAKURTZEKO DEKALOGOA (IRAKASLEARENTZAT)**

1. Irakurtzen hasi aurretik, azaldu ikasleei jardueraren arauak (irakasle bakoitzak ezarriko ditu bereak): “ezin da altxatu”, “utzi galderak azkenerako”...
2. Liburua aurkezten denean, eman, labur, idazleari buruzko informazio laburra.
3. Irakurri liburua, zeure kontura ikasleei irakurri aurretik. Izan ere, irakasleak aurrez irakurri behar du irakurgaia, zailtasunak aurreikusteko, egin beharko dituzten doinu-aldaketak erabakitzeko, gero zeri buruz hitz egin prestatzeko, egun bakoitzean zenbat irakurriko zaien erabakitzeko...
4. Saio bakoitzean, kapitulu oso bat irakurri behar da, baina betiere kontuan hartuko dira ikasleek adi egoteko duten gaitasuna eta kapituluaren luzera.
5. Behin irakurraldia hasita, maiztasun batekin (hasieran 3/4 aldiz astean) irakurri behar da, istorioaren hariari jarraitu ahal izateko. Eten luzeak ekidin egin behar dira; esaterako, Gabonak edo Aste Santuko oporrengatik gerta daitezkeen etenaldiak.
6. Irakurri bitartean, ez erakutsi liburuan agertzen diren irudiak, ezta horri buruzko filmik ere. Horrela, entzuten duena irudikatu ahal izango du ikasle bakoitzak.
7. Zaindu irakurketaren erritmoa eta doinua. Erritmo eta doinu lasaia erabiliko dira, batez ere, gauza garrantzitsuak gertatzen direnean. Horrek ez du esan nahi beti tonu neutroa erabili behar denik (ogroaren ahotsak beldurgarria izan behar du; eta haur txiki batena fina; pertsonaia negarrez ari denean, zotinka bezala hitz egin behar da...).
8. Erabaki nola jokatu hitz ezezagunekin. Hitz gehienak testuinguruan ulertu behar badira ere, honela jokatu daiteke:
   - Irakurri ahala, hitz ezezaguna eta bere sinonimoa batera esan daitezke (adibidez. *etxola* edo *txabola*).
   - Hitz hori testua ulertzeko ezinbestekoa bada, irakurtzen hasi aurretik azaldu daiteke.
9. Ez egin ulermen-galdera zuzenik kapitulua irakurri eta gero. Dena den, komenta daiteke gustatu zaien, zer gustatu zaien gehien, zer egingo luketen horrelako zerbait gertatuz gero... Hausnarketa hori oso egokia da aurreko egunetan irakurritakoa birgogoratzeko

eta nork bere iritzia emateko, besteak beste.
10. GOGORATU: "Irakasleak gozatu ezik, ezin izango du gozarazi".

Bukatzeko, gogoan izan ikasleei ahots gora irakurtzean:

- Ikasleen zentzumen guztiak aktibatzen direla.
- Betiko gordeko dituztela memorian irakurlearen ahotsak utzitako aztarnak.
- Istorio horietako parte direla sentituta, irudimena eta sormena garatuko dituztela.
- Kulturarekiko jakin-mina eta ikasteko grina piztuko zaizkiela.

Ukaezina ia ezinbestekoa dela ikasleei ipuinak kontatzea, irakurle bihurtuko badira, adina edozein dela ere.

Eta orain, denon bihotzak liluratzeko, soilik irakurtzen hastea falta zaigu. Aurrera!

## 2.2 IRAKASLEARENTZAKO IKAS-EGOERAREN GIDA

### A. INPLIKATURIKO IKASGAIAK

Lan hau Lehen Hezkuntzako 4. mailako diziplinarteko ikas-egoera bat da. Tutoreak Euskara eta Literatura, Matematika, Arte Hezkuntza (Plastika), Tutoretza eta Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza arloak euskaraz emango ditu, hizkuntza hori baita ardatza.
Espezialisten ardurapean dauden arloak ere –Gaztelania eta Literatura, Heziketa Fisikoa, Atzerriko Lehen Hizkuntza (Ingelesa) eta Arte Hezkuntza (Musika)– landuko direnez, ikas-egoera lantzen hasten denean, hizkuntza bera eta arlo bakoitzari eskaintzen zaion denbora zaindu beharko dira eta beharren arabera egokitu.
Ikas-egoera aurrera joan ahala, jarduerak osatu, aldatu eta moldatu daitezke ikasleen interesen arabera, baina, betiere, abiapuntua eta azken ekoizpena mantenduz.

### B. SAIO-KOPURUA

Ikas-egoera egiteko hiruhileko oso bat behar dela aurreikusi da, baina ez dago saio-kopurua zehazterik: irakasle bakoitzak programatuko du saio-kopurua egingo dituen jardueren arabera.

### C. IKAS-EGOERAREN MARKOA

#### Testuingurua

Irakurketa proiektuko Ozen Oz ekimenaren barruan, irakasleek hainbat liburu irakurtzen dituzte gelan, ahots gora. Jarduera hori ikasleentzat hain motibagarria dela ikusirik, ahots gora irakurtzen diren liburuetatik bat aukeratu da ikas-egoera bat sortzeko: *Kensukeren mundua*, hain zuzen ere.

Irakasleak *Kensukeren mundua* irakurriko du hiruhilekoan zehar, eta, bide batez, arlo desberdinetako edukiak landuko ditu; hori gauzatzeko, talde kooperatiboetan oinarritutako taldekatzeak eta dinamikak egingo dira, besteak beste.

## Abiapuntua

Irakasleak ikasleei azalduko die *Kensukeren mundua* liburua irakurriko diela eta istorioaz gozatzeaz gain, liburuak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuko direla beren intereseko gaiak lantzeko.

## Azken ekoizpena

Morpurgok gizartean pil-pilean dauden hainbat gai jartzen ditu mahai gainean, esaterako, isileko ehiza. Gai hori baliatuz, ikasleak naturan gertatzen ari diren aldaketez hausnartzera bultzatu nahi ditugu, bai eta naturarekiko konpromisoak hartzera ere. Adostutako konpromisoak infografia formatuan aurkeztuko dituzte taldearen aurrean. Infografia Canva aplikazioan sortuko dute.

Horrez gain, liburuko protagonistak eta bere gurasoek belaontzian munduari bira egingo diote, eta ikasleek flotatzen duen belaontzi baten prototipoa eraiki beharko dute.

## D. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA

### Proposamenaren xedea

*Kensukeren mundua* liburuko protagonistari, Michaeli, gurasoak lanik gabe geratzeak erabat aldatuko dio bizitza. Gertaera horrek aukera eskainiko dio munduari bira egiteko, bai eta hainbat bidegabekeria ikusi eta bizi izateko ere; besteak beste, isileko ehiza eta gerra.

**Liburuan lantzen diren gaiak baliagarriak dira ikasleekin oinarrizko nozio politiko batzuk lantzeko eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko beharrari buruz hausnartzeko**; elkarbizitzaren ezaugarriak identifikatzeko eta haien aurrean sentsibilizatzeko; jarrera arduratsua garatzeko eta bizimoduaren eta ingurunearen arteko harremanez jabetzeko; eta proiektu kolektibo baten parte sentitzeko.

Gai horiek bat datoz Giza Garapen Jasangarrirako 8., 15. eta 16. helburuekin.

### Curriculumean oinarritutako argudiaketa

Ikas-egoeraren bitartez, ikasleek eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak landuko dira. Funtsezko konpetentzia horiek ezinbestekoak izango dira ikasleen irteera-profila eskuratzeko: euren garapen pertsonalerako; bizitzako hainbat esparrutako egoerak eta arazoak konpontzeko; hobetzeko aukera berriak sortzeko; euren sozializazio-prozesuan aurrera egiteko; eta natura eta planeta zaintzeko kontzientzia hartzeko.

Taulan, funtsezko konpetentziak siglen bidez adierazi dira. Honako hauek dira:

- HKK: Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- KE: Konpetentzia eleaniztuna
- STEM: Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia
- KD: Konpetentzia digitala
- KPSII: Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
- HK: Herritartasunerako konpetentzia
- EK: Ekintzailetza-konpetentzia
- KAKK: Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

(Ikus Curriculumean oinarritutako argudiaketa taula)

### Helburu didaktikoak

- Testuak lantzea, entzumenaren, idazmenaren eta mintzamenaren bidez komunikazio-konpetentzian trebatzeko.
- Langabezia-tasaren eredu bat aztertzea, hainbat grafiko erabiliz, datuak interpretatzen ikasteko.
- Gizarte-gatazkak aztertzea, langabezia eta Bigarren Mundu Gerra kasu, iritzi kritikoa izateko.
- Itsasoko animaliak eta primateak ezagutzea, era askotako informazio-iturriak erabiliz, animalia horien egoeraz eta gizakion ekintzen erantzukizunez jabetzeko.
- Herrialde batzuen kokapena aurkitzea, mapa mutuak erabiliz, lantzen diren kontzeptuak munduan kokatzeko.
- Flotagarritasunaren printzipioa ulertzea, material aproposa erabiliz belaontziaren maketa eraikitzeko.
- Edozein motatako lanak aurrera ateratzea, talde kooperatiboen teknikak erabiliz, elkar errespetatzeko eta taldean lan egiten ikasteko.

**Landuko diren konpetentziak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak**
**Curriculumean oinarritutako argudiaketa**

<table>
<tr><th>Funtsezko konpeten-tziak</th><th>Deskrip-toreak</th><th>Konpetentzia espezifikoak</th><th>Ebaluazio-irizpideak</th><th>Oinarrizko jakintzak</th></tr>
<tr><td colspan="5">MATEMATIKA</td></tr>
<tr><td rowspan="4">HKK<br>KE<br>STEM<br>KD<br>KPSII<br>HK<br>EK<br>KAKK</td><td rowspan="4">1,2,3,4,5<br>1,2,3<br>1,2,3,4,5,6<br>1,2,3,4,5<br>1,2,3,4,5<br>1,2,3,4<br>1,2,3<br>1,2,3,4</td><td>3. Eguneroko bizitzan oinarritutako egoeretan, aieru errazak aztertzea, formulatzea eta egiaztatzea edo problema matematikoak planteatzea, modu gidatuan, arrazoibidearen eta argudiatzearen balioa aintzat hartuz, haien baliozkotasuna kontrastatzeko, eta ezagutza berria eskuratzeko eta integratzeko.</td><td>3.2 Eguneroko bizitzan aurkitu daitezkeen problemen eta egoera matematikoen adibideak proposatzea, eta nola ebatz daitezkeen arrazoitzea eta argudiatzea.</td><td rowspan="4">A. Zenbaki-zentzua<br>4. Erlazioak<br>Batuketaren eta kenketaren arteko erlazioa, eta biderketaren eta zatiketaren artekoa:<br>eguneroko testuinguruetan aplikatzea.<br>D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala<br>2. Eredu matematikoa<br>Modu arautuan modelizatzeko prozesuak (analogikoak edo digitalak), adierazpide matematikoak erabilita (grafikoak, taulak...), eguneroko bizitzako problemen ulermena eta ebazpena errazteko.<br>E. Zentzu estokastikoa<br>1. Antolaketa eta datuen analisia<br>Eguneroko bizitzako grafiko estatistikoak (piktogramak, barra-grafikoak, histogramak...): irakurketa eta interpretazioa.<br>Bi datu multzoren konparazio grafikoa, erlazioak ezartzeko eta ondorioak ateratzeko.<br>F. Zentzu sozioafektiboa<br>2. Talde-lana, inklusioa, errespetua eta aniztasuna<br>Ikasgelan dauden desberdintasun indibidualen aurreko sentsibilitatea eta errespetua. Diskriminazio-jarrerak ingurune analogikoetan zein digitaletan: identifikazioa eta gaitzespena.<br>Talde-lanean aktiboki parte hartzea: entzute aktiboa eta besteen lanarekiko errespetua.</td></tr>
<tr><td>5. Ideia matematikoen arteko loturak ezagutu eta erabiltzea, eta beste arlo batzuetan edo eguneroko bizitzan inplikatutako matematika identifikatzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, askotariko egoerak eta testuinguruak interpretatzeko.</td><td>5.2 Egoerak hainbat testuingurutan interpretatzea, matematikaren eta eguneroko bizitzaren arteko loturak ezagutuz.</td></tr>
<tr><td>6. Kontzeptu, prozedura eta emaitza matematikoak modu indibidual eta kolektiboan komunikatzea eta irudikatzea, terminologia matematiko egokia eta ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia, grafikoa eta multimodala erabiliz, ideia matematikoei esanahia eta iraunkortasuna emateko.</td><td>6.2 Prozesu eta ideia matematikoak, problema bat ebazteko jarraitutako urratsak edo lortutako emaitzak azaltzea, hizkuntza matematiko erraza eta zenbait formatu erabiliz.</td></tr>
<tr><td>8. Gizarte-trebetasunak garatzea, besteen emozioak eta esperientziak eta aniztasunaren balioa ezagutuz eta errespetatuz, eta esleitutako rolak dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartuz, matematikako ikasle gisa identitate positiboa eraikitzeko, ongizate pertsonala sustatzeko eta harreman onuragarriak sortzeko.</td><td>8.1 Talde-lanean aktiboki eta errespetuz laguntzea, egoki komunikatuz, taldearen aniztasuna errespetatuz eta tolerantzian, berdintasunean eta gatazken konponbide baketsuan oinarritutako harreman osasungarriak ezarriz.</td></tr>
</table>

| | | NATURA-, GIZARTE- ETA KULTURA-INGURUNEAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|
| | | 2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilita, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturalean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko. | 2.2. Ikerketak eskatzen duenean, esperimentuak gidatuta egitea, hainbat ikerketa-teknika erabilita, tresnak eta gailuak modu seguruan erabilita, behaketa eta neurketa zehatzak eginda eta behar bezala erregistratuta.<br>2.5. Ikerketen emaitzak banaka eta taldean aurkeztea, hainbat formatutan (ahozkoa, grafikoa, idatzizkoa eta digitala), oinarrizko hizkuntza zientifikoa erabilita eta egindako urratsak azalduta. | **A: Kultura zientifikoa**<br>**1. Jarduera zientifikorako hastapenak**<br>Ikerlanaren berezko estrategiak, jakin-minarekin, ekimenarekin, iraunkortasunarekin eta norberaren lanerako ahaleginarekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzen laguntzen dutenak, bai bakarka, bai taldean, genero-ikuspegia kontuan hartuta.<br>**2. Bizitza gure planetan**<br>Gizakiak ekosistemekin duen harremana (hurbiltasunetik globaltasunera) gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera egokiak eta txarrak eta horien ondorioak. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan.<br>Animalien berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenarekin lotutako azpitaldeetan sailkatzeko eta bereizteko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea.<br>Biodibertsitatea. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak (habitatak suntsitzea, espezie inbaditzaileak, klima-aldaketa, kutsadura, baliabideak gehiegi ustiatzea...).<br>**B. Teknologia eta digitalizazioa**<br>**1. Ikaskuntza-ingurune pertsonala digitalizatzea**<br>Interneten informazio bilatzeko estrategia gidatu seguruak eta eraginkorrak (balorazioa, diskriminazioa, hautaketa eta antolaketa). * Interneten nabigatzeko eta ikaskuntzako ingurune digital pertsonala babesteko oinarrizko segurtasun- eta pribatutasun-arauak.<br>**2. Diseinu eta pentsamendu konputazionaleko proiektuak**<br>Diseinu-proiektuen faseak: beharrak identifikatzea, diseinatzea, prototipoak eta probak egitea, ebaluatzea eta komunikatzea.<br>Talde-lanerako teknika kooperatibo errazak, eta gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzeko eta jokabide |
| | | 3. Arazo-egoerak diziplina arteko proiektuen bidez ebaztea, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz, premia zehatzei erantzungo dien produktu sortzaile eta berritzaile bat lankidetzan sortzeko. | 3.3. Diseinu-arazo bati irtenbidea emango dion amaierako produktu erraz bat taldean eraikitzea, prototipo edo soluzio digital desberdinak probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz.<br>3.4. Diseinu-proiektuen emaitza aurkeztea, egindako urratsak azaltzea eta prototipo edo soluzio digital horrek proiektuaren baldintzak zergatik betetzen dituen justifikatzea. | |
| | | 6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarriz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko. | 6.2. Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura jasangarri egokiak praktikan jartzea.<br>6.3. Inguruneko arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuta. | |
| | | 9. Gizarte-ingurunean eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzea, Adierazpen Unibertsalek eta | 9.1. Eskola-komunitatean parte hartzea, jarduerak eginez, ardurak bere gain hartuta | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legeriak bultzatutako printzipio demokratikoek ezartzen dituzten balioak errespetatuz, erakunde demokratikoek bakea eta segurtasuna mantentzeko duten funtzioa balioetsiz, errespetuzko harremanak sortzeko eta gatazken kudeaketa baketsua eta elkarrizketa bidezkoa sustatzeko. | eta elkarrizketa akordio demokratikoak ezarriz, eta hizkera inklusiboa eta indarkeriarik gabeko erabilita. | enpatiko eta inklusiboak sustatzeko estrategiak.<br>**C. Gizarteak eta lurraldeak**<br>**1. Egungo munduaren erronkak**<br>Jarduera ekonomikoen irudikapen grafikoa eta horren interpretazioa.<br>**2. Gizarteak denboran zehar**<br>Denbora historikoa. Denbora-nozioak eta kronologia. Etapa historiko handien denbora-kokapena ardatz kronologikoetan.<br>Gizakiaren ekintza historian, subjektu gisa. Gizabanakoek eta gizarte-taldeek garai historiko bakoitzean dituzten zereginak, harremanak, gatazkak, sinesmenak eta baldintzatzaileak interpretatzea.<br>**3. Alfabetatze zibikoa**<br>Gizartean bizitzeko konpromisoak eta arauak.<br>**4. Kontzientzia ekosoziala**<br>Giza ekintzen ondoriozko erantzukizun ekosoziala. Erantzukizun indibidualak eta kolektiboak. Animaliekiko tratu txarra eta horren prebentzioa. |
| | | **EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA** | | |
| | | 2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarrizko edukiko alderdiak balioetsiz, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio-premiei erantzuteko. | 2.1 Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzua ulertzea, ideia nagusiak, mezu esplizituak eta mezu inpliziturik errazenak ezagutuz eta edukiaren eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarrizkoenen balorazio kritikoan laguntzarekin aurrera eginez. | **A. Hizkuntzak eta hiztunak. Eleaniztasuna**<br>*Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak: elebitasuna eta hizkuntza-normalizazioa.<br>**B. Komunikazioa**<br>**1. Hizkuntzaren erabilerak**<br>*Edukiko (gaiak, formula finkoak, lexikoa) eta formako (egitura, formatua, izenburua, irudiak) oinarrizko elementuak.<br>*Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu.<br>**2. Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza**<br>*Ahoskera eta intonazio egokiak.<br>*Ezagutzaren eraikuntza, balorazioa eta komunikazioa, betiere ahozko testu eta testu multimodal errazak laguntzarekin planifikatzearen eta produzitzearen bidez. |
| | | 3. Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteko; ezagutza eraikitzea; lotura pertsonalak ezartzea; eta askotariko ahozko elkarrekintzetan autonomiaz eta jarrera kooperatibo eta enpatikoz parte hartzea. | 3.1 Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak plangintza lagundu bidez sortzea, diskurtsoaren erregistroa komunikazio-egoerara egokituz eta hitzezkoak ez diren oinarrizko baliabideak erabiliz. | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | 4. Testu idatzi eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarrizko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta eraikitzeko eta askotariko komunikazio-beharrei eta -interesei erantzuteko. | 4.1 Zenbait arlotako eta askotariko xedeetarako testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta informazio esplizitua laguntzarekin ezagutuz. | **3. Irakurmena**<br>*Banako irakurketa, garapen kognitiborako egokiak diren intonazioarekin eta erritmoarekin.<br>Testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan, askotariko iturri dokumentaletako testuen zentzu orokorra ulertzeko eta informazio esplizitua laguntzarekin integratzeko oinarrizko estrategiak.<br>*Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak erabiltzeko oinarrizko estrategiak, testuen ulermena hobetze aldera.<br>**4. Idatzizko produkzioa**<br>Aurkezpen zaindua eta oinarrizko ortografia-arauen aplikazioa.<br>Testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan planifikatzeko, idazteko, berrikusteko eta editatzeko oinarrizko estrategiak eta ereduak, banakakoak nahiz taldekakoak, zenbait komunikazio-helburuekin.<br>Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak erabiltzeko oinarrizko estrategiak, idatzizko adierazpena hobetze aldera.<br>**C. Literatura-hezkuntza**<br>Irakurle-nortasunaren eraikuntza. Gustuen eta interesen adierazpena. Obren balorazio argudiaturako hastapenak.<br>Gelako edo ikastetxeko liburutegia erabiltzeko jarraibideak, literatura-jarduera partekatuetarako espazioa. Irakurketa-komunitateak.<br>**D. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan**<br>Hiztegia zabaltzeko funtsezko elementuak. Arlo lexiko edo semantiko bereko hitzen arteko antzekotasunak eta forma- eta esanahi-desberdintasunak |
| | | 5. Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea, edukiak zuzen sekuentziatuz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenerako eta ediziorako oinarrizko estrategiak aplikatuz, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteko. | 5.1 Edukien sekuentzian nolabaiteko koherentzia izango duten testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan eta zuzentasun gramatikal eta ortografikoz sortzea, komunikazio-egoera bakoitzari hobe erantzungo dion diskurtso-eredua aukeratuz eta idazketaren prozesu ebolutiboaren etapak errespetatuz (plangintza, idazketa eta berrikuspena). | |
| | | 7. Gustuen eta interesen arabera aukeratutako askotariko obrak autonomiaz irakurtzea, irakurketa-esperientziak partekatuz, irakurle-nortasuna eraikitzen hasteko, irakurzaletasuna plazer- iturri gisa sustatzeko eta irakurketaren gizarte- eta kultura-dimentsioaz gozatzeko. | 7.2 Askotariko euskarritako (digitala barne) irakurketaren esperientzia partekatzea, eskola-esparruko irakurketa -komunitateetan parte hartuz eta irakurketa norberaren ezagutza- eta garapen-iturri gisa balioetsiz. | |

| | | ARTE HEZKUNTZA | | |
|---|---|---|---|---|
| | | 4. Kolaborazioko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertenentziaren zentzua garatzeko. | 4.2 Sorkuntza-prozesuan aktiboki parte hartzea, zenbait arte- hizkuntzatako oinarrizko elementuak erabiliz eta interesa eta errespetua erakutsiz.<br>4.3 Sormen-esperientzia partekatzea, oinarrizko zenbait komunikazio-estrategia erabiliz, prozesuaz zein lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen iritzia balioetsiz, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez. | **B. Plastika eta Ikus Hezkuntza**<br>**1. Pertzepzioa eta analisia**<br>Plastika- eta ikus-adierazpenean erabiltzen diren materialak, tresnak, euskarriak eta oinarrizko teknikak.<br>**2. Sorkuntza eta interpretazioa**<br>Plastika-adierazpeneko bitartekoak, euskarriak eta materialak, arte-formatu garaikideak barne: esperimentazioa eta adierazpena. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko oinarrizko teknikak marrazki eta modelaketa errazetan.<br>Sorkuntza-prozesuaren faseak: plangintza, interpretazioa eta esperimentazioa. Kolaborazio-egikaritzea. Norberaren eta besteren prozesuaren zein azken produktuaren balorazioa, ebaluazioa eta interesa. |

## 2.3. JARDUEREN SEKUENTZIA

Jarduerak hiru fasetan sailkatu dira: hasierako fasea, garapen-fasea eta azken fasea. Hasierako fasean, liburua aurkeztu eta ikasleak motibatzeko ariketak egingo dira. Garapen-fasean, kapitulu bakoitzarekin lotutako jarduerak egingo dira. Azken fasean, ikas-egoeraren azken ekoizpenarekin lotutako jarduerak egingo dira.

### A. HASIERAKO FASEA

Hasierako fasea liburua irakurtzen hasi aurretiko fasea da, eta, besteak beste, ikasleak girotzeko, motibatzeko, jakin-mina pizteko eta aldez aurreko ezagutzak aktibatzeko ariketak proposatzen dira bertan.

| JARDUERAK | EBALUAZIO-ADIERAZLEAK | EBALUAZIO-TRESNAK |
|---|---|---|
| **1. jarduera**<br>*Kensukeren mundua* irakurtzen hasi aurretik, liburuaren azala erakutsi eta *Ikaslearen liburuxka*ren aurkezpena egingo da: denon artean sarrera irakurriko dugu eta irakasleak kondaira azalduko die ikasleei. Ondoren, jakin-mina pizteko, "Ezetz asmatu!" fitxa egingo dute iragarpenak egiteko "Folio birakaria dinamika" erabiliz. Fitxa *Ikaslearen liburuxka*ko 1. orrialdean dago.<br>TALDE KOOPERATIBOENTZAKO TEKNIKAK. | - Aktiboki entzuten ahalegintzen da.<br><br>- Ahozko elkarrekintzetan parte hartzen du, hizkuntza-adeitasunaren oinarrizko arauak errespetatuz.<br><br>- Gaiarekiko interesa erakusten du.<br><br>-Taldeko dinamikan parte hartzen du, eta esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartzen ditu. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA<br><br>- TALDE-DINAMIKAK EBALUATZEKO TXANTILOIA. |
| **2. jarduera**<br>Michael Morpurgo idazlearen eta Michael Foreman marrazkilariaren biografiak landuko dira eta, eredu horietatik abiatuta, ikasleek euren senide baten biografia idatziko dute. | - Biografia-testuaren atalak ezagutzen ditu.<br><br>- Badaki biografia bat idazteko behar duen informazioa bilatzen.<br><br>- Gai da datu biografikoetatik abiatuta testu bat | - *Ikaslearen liburuxkako* 2., 3. eta 4. orrialdeetako fitxen behaketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- BIOGRAFIA 2. ZIKLOA. |

| | | |
|---|---|---|
| ❖ *Ikaslearen liburuxka*ko 2. orrialdeko testuan, idazlearen zenbait datu aurkitu beharko dituzte eta bertan azpimarratu: izen-abizenak (gorriz), non eta noiz jaio zen (urdinez), zer ikasi zuen (berdez), zer lanbide zuen (horiz), zein ziren haren zaletasunak (laranjaz) eta ze gertaera esanguratsu aipatzen diren testuan (morez).<br>❖ Michael Foreman marrazkilariaren biografiari buruzko entzungaia entzungo dute eta galderei erantzungo diete (Entzungaia *Ikaslearen liburuxka*ko 3. orrialdean dago estekatuta). Hona hemen, biografiari buruzko ahozko testuaren transkripzioa (beheko koadroa) eta entzungaiaren esteka: | sortzeko era ordenatu batean.<br><br>- IKT baliabideak era egokian erabiltzen ditu (Google Dokumentua).<br><br>- Marrazkilariaren biografia entzun ondoren gai da ulermen-galderei erantzuteko. | |

| | | |
|---|---|---|
| **MICHAEL FOREMAN MARRAZKILARIAREN BIOGRAFIA**<br>1938. urtean jaio zen, Ingalaterrako Pakefield herrian.<br>Jaio aurretik hil zitzaion aita, eta amak herriko dendan lan egiten zuen. Haurtzaroko oroitzapen guztiek gerrarekin dute lotura. Haren esanetan, "Txikia nintzenean gerra zerbait normala zela uste nuen. Nire txikitako lehen oroitzapena da, nire logelan bonba bat jausi zenekoa: goizeko hamarrak ziren, nik 3 urte nituen eta lo nengoen…".<br>Gerora, mundu osoan zehar ibili da, betiere poltsikoan koaderno bat zuela, ikusitako guztia idazteko eta margotzeko.<br>Txikitako bizipenak oso presente daude haren lanetan, eta gerrak, gatazkak eta natura dira gehien jorratzen dituen gaiak.<br>Haur eta gazte literaturako ilustratzaile oparoena eta ezagunenetariko bat da. 1961. urtean margotu zuen bere lehen liburua, eta, harrezkero, 250 lan baino gehiago argitaratu ditu. Gehienetan, beste idazle batzuen lanak ilustratu ditu; besteak beste, Michael Morpurgorenak, Roald Dahlenak eta Charles Dickensenak. Baina baditu berak idatzi eta margotutakoak ere.<br>Lan horiengatik, mundu mailako sari esanguratsuenak jaso ditu, adibidez, "World Ilustration Award" saria.<br><br>Entzungaia:<br>https://drive.google.com/file/d/1JemgWRlPE6FOHIDtu5fJ82FegKkWspJE/view?usp=sharing<br><br>❖ *Ikaslearen liburuxka*ko 4. orrialdean, biografia-testuen ezaugarriak azaltzen dira. Hurrengo orrialdean, "Zure txanda!", familiako kide baten biografia idazteko datuak bildu beharko dituzte. Datu horiekin testu bat osatuko dute koadernoan. Testua | | |

| | | |
|---|---|---|
| zuzenduta dagoenean, ordenagailuan idatziko dute Google Dokumentuak formatuko dokumentu batean.<br><br>Hona hemen Google Docs dokumentuak egiteko gaztelaniazko tutorial bat:<br><br>Tutorial Perspectiva Alumno GOOGLE DOCS 2020 \| Españ... | | |
| **3. jarduera**<br>Ingeleseko irakasleak Michael Foreman ilustratzaileak idatzitako *Mia´s Story* liburua irakurriko die. | - Adi eta gustura entzun du ipuina. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA. |

## B. GARAPEN-FASEA

Fase honetan, irakaslea liburua irakurtzen hasiko da eta irakurritakoarekin lotutako jarduerak egingo dira.
Horrez gain, kontuan izan liburua irakurri ahala jarduera paralelo batzuk egingo dituztela:

- Ikasleek hitz ezezagunak eta definizioak jasoko dituzte liburuxkaren atzealdean dagoen “Hiztegia” fitxan.
- Lehen kapitulutik aurrera, bidaiaren ibilbidea marraztu beharko dute.
- Nobela irakurtzen hasiaz batera, *Sadako eta paperezko mila kurrioloak* liburua banatuko zaie etxean irakur dezaten; liburu horrekin irakurle-txokoa edo tertulia literarioa egingo da gerraren gaia lantzen denean (8. kapituluan).
- Liburuen kutxa edo gelako liburutegia osatuko da, ikas-egoeran landuko diren gaiekin lotura duten liburu-sorta eskolara ekarrita. Liburu horiek honetarako erabiliko dira: batetik, egunero gelan 15 minutuz irakurtzeko; bestetik, etxera maileguan eramateko; eta, azkenik, gelan eskatzen zaizkien lanak egiteko (adibidez, informazioa bilatzeko).
- Film bat ikustera joango dira herriko zinema-aretora: *Gorilas en la niebla.*
- Irteera egingo da Bilboko Itsasadarra Itsas Museora (https://itsasmuseum.eus/).

| JARDUERAK | EBALUAZIO-ADIERAZLEAK | EBALUAZIO-TRESNAK |
|---|---|---|
| LEHEN KAPITULUA: PEGGY SUE<br><br>**1. jarduera**<br>*Kensukeren mundua* liburuko 11. eta 12. orrialdeetako lehen hiru paragrafoak irakurri ondoren, ikasleek beren liburuxkako “Nor ote da?” fitxa (6. or.) beteko dute. Hasieran, bakoitzak bere fitxa beteko du, eta, gero, talde handian partekatuko du idatzitakoa.<br>**2. jarduera**<br>*Kensukeren mundua* liburuko 12. orrialdetik 17. orrialdera irakurriko dute. Talde handian, langabeziari buruzko galderei erantzungo diete *Ikaslearen liburuxka*ko 7. fitxan. Egitura gramatikal hauek landuko dira: | - Aktiboki entzuten ahalegintzen da.<br><br>- Ahozko elkarrekintzetan parte hartzen du, hizkuntza-adeitasunaren oinarrizko arauak errespetatuz.<br><br>- Landutako ahozko egitura gramatikalak egoki erabiltzen ditu.<br><br>- Langabeziari buruzko datuak interpretatzen ditu.<br><br>- Emandako datuekin grafikoak egiten ditu. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- Ikaslearen liburuxkako 6., 7., 8., 9. eta 10. orrialdeetako fitxen behaketa eta aurrez aurreko feedbacka. |

| | | |
|---|---|---|
| - Baldintza eta ondorioa: *Aita/Ama/Gurasoak langabezian* ***ba****lego/****ba****leude, igerilekura joateari uko egingo nio****ke****.*<br>- *Uko egin* aditz-lokuzioa eta ZERI kasua: *jostailu****ei****, play-station****ari****…*<br>- Iritzia adierazteko diskurtso-markatzaileak: ***nire ustez, nik uste, nire iritziz, uste dudanez.***<br>- Kausazko esaldiak: *Zergatik zatoz berandu? Loak hartu naue****lako.***<br>**3. jarduera**<br>*Ikaslearen liburuxka*ko 8. eta 9. orrialdeetan, langabeziaren gaiarekin jarraituz, matematikako eduki hauek landuko dira: datuen interpretazioa eta grafikoak.<br><br>**ITURRIA:**<br>https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial.html<br><br>Langabeziari buruzko grafiko gehiago ikusi nahi izanez gero, esteka hau erabil daiteke:<br>https://apps.lanbide.euskadi.net/apps/TM_MUNICIPIO?LG=E&ML=ESTMEN2&MS=Naa&PROV=48&MUNI=48004<br><br>**4. jarduera**<br>*Kensukeren mundua* liburuko lehen kapitulua irakurritakoan, *Ikaslearen liburuxka*ko 10. orrialdeko mapa erakutsiko zaie eta eskatuko zaie kapituluak entzun ahala bidaiaren ibilbidea marrazteko. Mapan, datu hau adierazi beharko dute ibilbidearen hasieran: Southampton, 1987ko irailaren 10a. | - Liburuan agertzen diren tokiak mapan kokatzen ditu. | |

| | | |
|---|---|---|
| BIGARREN KAPITULUA: URA, URA BAINO EZ<br><br>**1. jarduera**<br><br>Liburuko kapitulu berria irakurtzen hasi aurretik, ikasleek, banaka, liburuxkako 11. orrialdeko fitxa egingo dute. Bertan idatziko dute munduari bira egiteko eramango lituzketen gauza pertsonalak; ondoren, ahoz adieraziko dute zergatik aukeratu dituzten. Gehien landuko den ahozko egitura gramatikala hau da:<br>- Helburuzko esaldiak: *Nik nintendoa aukeratu dut, aspertzen naizenean jolas**teko.***<br>- Kausazko esaldiak: Nik …….eramango dut, gustatzen zaidalako.<br><br>**2. jarduera**<br>Irakurri liburuko kapitulu osoa eta Michaelen eskola bereziari buruzko solasaldia antolatuko da: *¿Te ha gustado la escuela de Michael? ¿Te gustaría que tus clases fueran así?* (Gustatu zaizu Michaelen eskola? Gustatuko litzaizuke zure klaseak ere halakoak izatea?)<br><br>**3. jarduera**<br>12. orrialdean agertzen den sardinaren fitxa teknikoa aztertuko da, zer egitura duen eta zer informazio eskaintzen duen.<br>Ondoren, ikasleek 12. orrialdeko fitxaren eredua jarraituz, itsasoko animalia baten fitxa teknikoa beteko dute (13. or.). Irakasleak guztiak zuzendutakoan, ikasleei bueltatuko dizkie. Azkenik, bakoitzak berea aurkeztuko du gelaren aurrean eta fitxa guztiekin gelarako bilduma osa daiteke. | - Aktiboki entzuten ahalegintzen da<br><br>- Ahozko elkarrekintzetan parte hartzen du, hizkuntza-adeitasunaren oinarrizko arauak errespetatuz.<br><br>- Landutako ahozko egitura gramatikalak egoki erabiltzen ditu.<br><br>- Hainbat iturritatik informazioa bilatzen du.<br><br>- Eredua jarraituz, itsasoko animaliaren fitxa teknikoa betetzen du.<br><br>- Ahozko aurkezpenetan kontuan izaten ditu: tonua, gorputzaren jarrera, azaldu behar duenaren egokitasuna eta ulergarritasuna. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- Solasaldia baloratzeko txantiloia: AHOZKO JARDUNAREN BEHAKETA<br><br>- *Ikaslearen liburuxka*ko 11., 12. eta 13. orrialdeetako fitxen behaketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- Fitxa teknikoa (deskribapena) zuzentzeko errubrika: DESKRIBAPENA<br><br>- AHOZKO AURKEZPENAK EBALUATZEKO TXANTILOIA. |

| | | |
|---|---|---|
| **HIRUGARREN KAPITULUA: NABIGAZIO-EGUNKARIA**<br><br>**1. jarduera**<br>Kapitulu honetan pertsonaiak bere nabigazio-egunkaria edo bitakora-koadernoa idazten du; hortaz, proposatzen da ikasleek ere haien **bitakora-koadernoa** osatzea. Bitakora-koadernoa egunerokoa da. Ikasleak bertan jasoko ditu idatziz berarentzat garrantzitsuak izan diren gertaerak, bizipenak, sentimenduak, eta horiekin lotutako askotariko objektuak ere gehitu ditzakete (kromoak, argazkiak, sarrerak...). Horretarako, erronka hau botako zaie:<br>❖ Euskarri bat aukeratu behar duzue. Edozer izan daiteke: koaderno bat, kutxa bat, panel bat..., baina apainduta egon beharko da.<br>❖ Aukeratutako euskarrian, egunero, bi astez, zerbait txertatu beharko duzue (kromoak, museoko edo zinemako sarrerak, argazkiak, naturako zenbait material....)<br>❖ Bestalde, astean zehar, nahi dituzun bi egunetan, egunerokoa idatzi beharko duzue eta aukeratutako bitakora-koadernora gehitu.<br>❖ Egunerokoa idazteko kontuan izan honako hauek: jarri data, ordenatu gertaerak kronologikoki eta idatzi aditza 1. pertsonan.<br><br>**2. jarduera**<br>Liburuko 42. orrialdean, Michael eta bere familia Santa Elena uhartetik igarotzen dira. Orduan, Michaelek Napoleoni buruzko informazioa bilatu eta horren inguruko lana egin beharko du. Horrekin lotuta, ikasleek lan bera egingo dute. Interneten informazio hau bilatu beharko dute: datu pertsonalak, bizi izan zen garaiko datu esanguratsuenak, zergatik izan zen ospetsua, bere bizitzako pasadizoak. Bukatzeko, lan hori Canva formatuan aurkeztuko dute infografia eran. Lana taldeka egitea | - Bitakora-koadernoa egiteko emandako aginduak betetzen ditu.<br><br>- Lana gogotsu egin du.<br><br>- Lana txukun aurkeztu du.<br><br>- Informazio garrantzitsua identifikatzen du.<br><br>- Bilatutako informazioarekin plangintza egiten du.<br><br>- Canva aplikazioa erabiltzeko gai da.<br><br>- Talde lanean era aktiboan parte hartzen du eta bestearen iritzia errespetatzen du. | - Bitakora-koadernoaren behaketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- Egindako infografia.<br><br>- Liburuxkako 15. orrialdeko fitxa<br><br>- Bitakora-koadernoaren plangintza: LANAREN PLANGINTZA |

| | | |
|---|---|---|
| proposatzen da. Talde-lana egiteko urratsak *Ikaslearen liburuxkako* 14. orrialdean zehaztuta daude. Lana bukatzen dutenean, liburuxkako 15. orrialdean taldeko eta banakako ebaluazioa egingo da.<br>Tutorial: Cómo hacer una infografía de forma sencilla<br>Irakaslearentzako, lagungarri gisa, Napoleonen biografia atxikitzen da.<br><br>**NAPOLEON BONAPARTE (1769-1821)**<br><br>Napoleon Bonaparte edo Napoleon I.a Korsikan jaio zen.<br>10 urte zituela, eskola militarrean matrikulatu ahal izan zuen matematikan oso trebea zelako. 16 urterekin amaitu zituen ikasketak.<br>1789an, 20 urte zituela, Frantziar Iraultza lehertu zen eta bertan hasi zen ikasitako ezagutza militarrak arrakastarekin erabiltzen. Buruzagi oldarkorra eta ankerra zen. 1799. urtean Frantzia osoko buruzagi izatera heldu zen, eta 1804. urtean bere burua Frantziako enperadore koroatu zuen Notre Dameko katedralean.<br>Hamarkada horietan, ia Europa osoa konkistatu zuen, eta mundu osoko gizonik boteretsuena bilakatu zen.<br>Borrokatzaile amorratua zen, ausarta, soldaduak erraz motibatzeko berezko sena zuen; handinahia zen eta ikaragarrizko botere gosea erakutsi zuen. Historian ezagutu den jenio edo iratxo militarrik handiena dela esan ohi da, baina, aldi berean, milioika herritarren hilketen eragilea ere izan zela azpimarratu behar da.<br>1815. urtean Errusia konkistatzen saiatu zenean hasi zen bere gainbehera, eta urte bereko uztailaren 15ean Waterlooko borrokan jasan zuen azken porrota. Ondorioz, atxilotu eta Santa Elena uhartean erbesteratu zuten. Pozoituta hil zen 51 urterekin. | | |

| | | |
|---|---|---|
| **LAUGARREN KAPITULUA: GIBOIAK ETA MAMUAK**<br><br>**1. jarduera**<br>Irakurri liburuko 55. eta 56. orrialdeak, eta ikaslearen 16. eta 17. orrialdeetako fitxak egingo dituzte flotagarritasun printzipioa lantzeko.<br><br>Gero, belaontzia eraikitzeko erronka egiten zaie ikasleei. Belaontzia diseinatzeko argibideak liburuxkaren 18. orrialdean daude. Lan hori talde txikietan egitea proposatzen da: euren arteko adostasuna lortzeko, konpromisoak hartzeko, ideiak arrazoitzeko eta eztabaidatzeko.<br><br>Bukaeran, talde bakoitzak ahoz azalduko die ikaskideei, egindako lanaren prozesua eta eskolan erakusketa antolatuko da.<br><br>Ikusiko duten bideoaren esteka hau da:<br>YouTube(2016). *Profesor 10 experimentos*. "*Porqué flotan los barcos*".<br>(https://www.youtube.com/watch?v=m4Ukv_ApI50&t=89s)<br><br>**2. jarduera**<br>Liburuko kapitulu osoa irakurri ondoren, albistea landuko da ikasleekin; horretarako, lehenengo, benetako albistea entzungo dute, eta, gero, galderei erantzungo diete (*Ikaslearen liburuxka*ko 19. or.).<br><br>EITB.eus (2022). *Bost ordu itsasoan.* Donostia.<br>(https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoa/8928124/vide | - Aktiboki entzuten ahalegintzen da.<br><br>- Esperimentu baten aurrean hipotesiak, egiaztapenak eta ondorioak ateratzen ditu.<br><br>- Esperimentu gidatuan urratsak jarraitzen ditu.<br><br>- Belaontziaren prototipoa egiteko taldean aktiboki parte hartzen du eta besteen ideiak errespetatzen ditu, konpromisoak hartzen ditu eta ideiak partekatzen ditu.<br><br>- Ahozko aurkezpenetan kontuan izaten ditu: tonua, gorputzaren postura, azaldu behar duenaren egokitasuna eta ulergarritasuna.<br><br>- Entzundako albistea ulertu du.<br><br>- Albiste-testuaren atalak identifikatzen ditu: ZER, NON, NOIZ eta NOLA.<br><br>- Kontakizunetik abiatuta albistea idazteko gai da, atal garrantzitsuenak bereiziz. | -Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- Ikaslearen liburuxkako 16., 17. eta 18. orrialdeen zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>-Taldeko lana baloratzeko txantiloia: TALDE-LANAREN EBALUAZIOA<br><br>- AHOZKO AURKEZPENAK EBALUATZEKO TXANTILOIA<br><br>- Belaontzia egiteko plangintza: LANAREN PLANGINTZA<br><br>- *Ikaslearen liburuxka*ko 19. eta 20. orrialdeen zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- Albiste testua zuzentzeko errubrika: |

| | | |
|---|---|---|
| o-donostiako-neska-gazte-batek-bizitza-salbatu-du-itsasoan-buruz-gora-etzanda-bost-ordu-eman-ondoren/#)<br><br>**3. jarduera**<br>Orain, Michaeli gertatutakoa albiste eran idatziko dute (ikaslearen liburuxkako 20. or.). Gogorarazi behar zaie albisteak ZER, NON, NOIZ, NORI eta NOLA galderen erantzunak jaso behar dituela eta atal desberdinak dituela. Albistearen atalak lantzeko txantiloi hau erabil daiteke:<br>NOLA IDATZI ALBISTEA | | ALBISTEA |
| **BOSGARREN KAPITULUA: NI, KENSUKE**<br><br>**1. jarduera**<br>Liburuko 5. kapitulu osoa irakurri ondoren, deskribapena landuko da. *Ikaslearen liburuxka*ko 21. orrialdean, Kensuke deskribatzerakoan adjektiboak azpimarratu eta beheko taulan sailkatuko dituzte (izaera edo itxura deskribatzen duten kontuan izanda).<br><br>Gero, 22. orrialdeko fitxan Kensuke marraztuko dute.<br><br>**NOLAKOA DA?**<br>Ñimiñoa zen, ni baino altuagoa ez eta inoiz ikusi nuen gizonik zaharrena. Gerrian loturiko bermuda zarpailak baino ez zituen soinean, eta aizto bat gerrikoan. Argala zen, iharra. Zenbait gorputz-ataletan –besazpietan, lepo inguruan eta diafragman– tolestu egiten zitzaion kobre koloreko azala, barrutik hutsik egongo balitz bezala, kasik. Buruan eta kokotsean zuen ile apurra luzea zen, mehea eta zuria. | - Aktiboki entzuten ahalegintzen da.<br><br>- Deskribatzerakoan adjektiboak identifikatzen eta sailkatzen ditu.<br><br>- Deskribatutako pertsonaia irudikatzen du marrazkiaren bidez.<br><br>- Ezagutzen duen pertsona deskribatzeko gai da, kontuan izanik testuaren ezaugarriak: adjektiboen erabilera, konparazioak, metaforak eta testuaren kohesioa.<br><br>- Irakasleak irakurritakoa ulertzen du eta gai da irudikatzeko.<br><br>- Plastikako lanarekin gozatzen du. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia:<br>BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- *Ikaslearen liburuxka*ko 21. eta 22. orrialdeetako fitxen zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- Deskribapena zuzentzeko errubrika:<br>DESKRIBAPENA<br><br>- *Ikaslearen liburuxka*ko kontrazalaren zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br>- TALDE-DINAMIKAK |

| | | |
|---|---|---|
| Segituan igarri nuen aztoratuta zegoela. Kokotsa dardarka zuen, eta bere begi hondoratuek haserrea eta mehatxua erakusten zizkidaten.<br><br>MORPURGO, Michael (2008). *Kensukeren mundua.* Donostia: Elkar. (79.or.)<br><br>Nola landu deskribapena:<br>DESKRIBAPENA<br><br>**2. jarduera**<br>Pertsonen deskribapenekin jarraituz, oraingo honetan, proposatuko zaie gelako ikaskide bat deskribatzea koadernoan. Horretarako, taldean adjektibo esanguratsuen zerrenda osatuko dute, bai itxura fisikoa, bai nortasuna adierazteko. Horrez gain, konparazioak (**bezain**, **beste**, **adina**, **baino** ... -**AGO**) eta metaforak (**Zeruko ipurtargiek** apaindu zuten gaua) lantzea komeni da.<br><br>**3. jarduera**<br>Kapitulu honetan (81., 82. eta 83. orrialdeetan), uhartea nola banatzen duen azaltzen du Kensukek. Ikasleei eskatuko zaie liburuxkaren kontrazaleko uhartea banatzeko liburuan aipatzen duen bezala. Lana taldeka egingo dute **Arkatzak erdira** talde-dinamika erabiliz.<br>TALDE KOOPERATIBOENTZAKO TEKNIKAK. | | EBALUATZEKO TXANTILOIA.<br><br>- Primateen horma-irudia. |

| | | |
|---|---|---|
| **4. jarduera**<br>Gorputz-Hezkuntzan, orientazio ariketak egingo dituzte, horretarako aproposak diren tresnak erabilita.<br><br>**5. jarduera**<br>Kapituluan zehar, primate mota bi agertzen dira (giboiak eta orangutanak). Horrekin lotuta, Anthony Brownen *Gorila bat* albuma irakurriko zaie. Plastikan primateen horma-irudia egingo dute; horretarako, ikasle bakoitzak albumeko primate bat aukeratuko du eta bere argazkia jarriko du animaliaren aurpegian.<br>BROWNE, Anthony (2012). *Gorila bat.* Iruñea: Kalandraka. | | |
| SEIGARREN KAPITULUA: ABUNAI!<br><br>**1. jarduera**<br>Irakasleak liburuko kapitulu osoa irakurri eta gero, ikasleek liburuxkan dagoen marmokaren testua irakurri eta galderak erantzun beharko dituzte. Ondoren, marmokaren fitxa teknikoa osatuko dute (*Ikaslearen liburuxka*ko 23., 24. eta 25. or.). | - Aktiboki entzuten ahalegintzen da.<br><br>- Marmokaren ezaugarriak identifikatzen ditu ulermen-testuaren bidez.<br><br>- Eredua jarraituz, marmokaren fitxa teknikoa betetzen du. | - Ikaslearen liburuxkako 23. eta 24. orrialdeetako fitxen zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- *Ikaslearen liburuxka*ko 25. orrialdeko fitxaren zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka eta deskribapena zuzentzeko errubrika: DESKRIBAPENA |

<table>
<tr>
<td>

**MARMOKAK**

Duela bost milioi urte existitzen diren animalia igerilariak dira. Itxura ezberdinak dituzte, baina gehienek perretxiko itxurako gorputza dute, eta ertzean 4 eta 8 garro bitartean dituzte. Ahoa, berriz, azpiko aldean edukitzen dute, eta planktona, arrain txikiak eta beste marmoka batzuk jaten dituzte.
Gorputzaren % 99 ura da. Gehienak, pozoitsuak dira, baina batzuk oso-oso pozoitsuak dira, esaterako, Karabela portugesa. Marmoka gehienek euren burua babesteko pozoia botatzen dute. Garroak erabiltzen dituzte ziztada mingarriak eragiteko, eta, kasu batzuetan, pozoia hilgarria izan daiteke.
Korronte eta haizeekin batera hurbiltzen dira kostaldera. Horregatik, ia ezinezkoa da jakitea noiz eta nora joango diren. Munduko edozein ozeanotan bizi dira, ur hotzetan zein epeletan.
Nahiz eta gizakioi eragozpen asko eragin, garrantzitsuak dira ekosistemarentzat, animalia askoren janaria baitira, batik bat, itsas dortokentzat eta beste arrain handientzat.

</td>
<td></td>
<td></td>
</tr>
<tr>
<td>

ZAZPIGARREN KAPITULUA: ISILTASUN IZUGARRI HARK ZIOENA

**1. jarduera**
Irakasleak liburuko kapitulu osoa irakurri ondoren, ikasleek liburuxkan dagoen kobazuloaren deskribapena berriz irakurri, eta gero, A3 tamainako folio batean leizearen marrazkia egingo dute (*Ikaslearen liburuxka*ko 26. or.). Ulertzen ez dituzten hitzak azpimarratu, hiztegian bilatu eta idatziko dituzte.

</td>
<td>

- Aktiboki entzuten ahalegintzen da.

- Deskribatutako lekua irudikatzen du marrazkiaren bidez.

- Ulertzen ez dituen hitzak hiztegian bilatzeko gai da, eta hiztegian irakurritakoa ulertzen du.

- Ikasgela idatziz deskribatzen du testuaren

</td>
<td>

- Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.

- Hiztegiaren zuzenketa (Liburuxkako atzealdean).

- Kobazuloaren marrazkia.

</td>
</tr>
</table>

| | | |
|---|---|---|
| **KENSUKEREN KOBAZULOA**<br><br>Egunetik egunera, argiago ikus nezakeen nire ingurua. Han beheko hondartzaren ertzean nuen haitzuloaren aldean handia eta zabala zen beste hau. Harkaitzezko gangadun sabaiagatik izan ez balitz, ohartu ere ez nintzatekeen egingo kobazulo batean nengoenik. Han ez zen ezer falta! Aterik gabeko etxea zen, baina ongi antolatua: sukaldea, egongela, estudioa, logela [...]<br>Kobaren amaieran etengabe ke-lainoa sortzen zuen su txiki batean prestatzen zuen jatekoa. Kea harrizko sabaiko arrakala txiki batetik irteten zen [...]<br>[...] Baziren beste apalategi batzuk ere, eta haietan era guztietako potoak eta ontziak zeuden, handiak eta txikiak, biribilak eta laukiak. Eta haien azpian zintzilik, belar eta lore-sortak [...]<br>Koba-etxean ez zegoen altzari askorik. Haitzuloaren ahoaren albo batean egurrezko mahai bat zegoen, baxua [...] Han gordetzen zituen pintzelak –beti ongi eta txukun ordenaturik–, ontziak, botilak eta kikarak.<br>[...] Haitzuloaren ahotik apartatuen zegoen txokoan lan-aulki bat zegoen eta, hormatik zintzilik, hainbat erreminta: zerrak, mailuak, era guztietako zizelak [...]<br>[...] Haitzuloaren sarreran urez beteriko balde bat zegoen [...]<br>[...] Ehunduriko ihiz eginiko –gure esterillak bezala– lanpasez estalia zegoen zoru osoa. Eta kobazuloko hormak, banbuz estalirik zeuden buruaren altueraraino.<br><br>MORPURGO, Michael (2008). *Kensukeren mundua.* Donostia: Elkar. (113-116. or.) | ezaugarriak kontuan izanda. | - *Ikaslearen liburuxka*ko 27. orrialdeko fitxaren zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka eta deskribapena zuzentzeko errubrika:<br>DESKRIBAPENA |

| | | |
|---|---|---|
| **2. jarduera**<br>*Ikaslearen liburuxka*ko 27. orrialdean, ikasgela deskribatuko dute.<br><br>**3. jarduera**<br>Musika arloan Japoniako abesti hau landuko da: AKAI HANA.<br>AKAI HANA abestia: https://youtu.be/VPfVPgRQs1E | | |
| **ZORTZIGARREN KAPITULUA: NAGASAKIN, DENAK HILAK**<br><br>**1. jarduera**<br>Irakasleak liburuko 8. kapitulu osoa irakurriko du. Kapitulu horretan, Bigarren Mundu gerra aipatzen denez, gelan gai hori landuko da jarduera hauen bitartez:<br>❖ Ikasleen liburuxkako 28. orrialdean gai honen inguruko teoria jorratzen da.<br>❖ 29. orrialdean, teorian irakurritako bandoen banaketa mapa batean kokatuko dute.<br>**Iturria:** https://mapamundi.online/politico/<br>❖ 30. orrialdean, bi ariketa proposatzen dira: lehenengoan, Europako mapan, ardatz bandokoek konkistatutako herrialdeak margotu behar dituzte; eta bigarrenean, gaur egun aktibo dauden gerrak bilatu eta mapan kokatuko dituzte. Amaitzeko, gai honi buruzko solasaldia egin daiteke.<br><br>**Iturria:** https://www.thinglink.com/scene/594611161240273409<br>**Iturria:** https://mapamundi.online/politico/ | - Aktiboki entzuten ahalegintzen da.<br><br>- Bigarren Mundu Gerraren gertaera orokorrak denboran kokatzen ditu eta gatazkaren inguruko hausnarketa kritikoa egiteko gai da.<br><br>- Munduko mapan herrialde desberdinak kokatzen ditu.<br><br>- Gaur egungo gerren informazioa bilatzeko egoki erabiltzen ditu teknologiak.<br><br>- Sadako liburua irakurri du.<br><br>- Tertulia literarioan aktiboki parte hartu du, besten iritzia eta txandak errespetatuz.<br><br>- Denbora-lerroa zuzen kopiatu du eta familiako kideen jaiotza-datak gehitu ditu. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- Ikaslearen liburuxkako 28., 29. eta 30. orrialdeetako fitxen zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- Solasaldien behaketa txantiloia: AHOZKO JARDUNAREN BEHAKETA<br><br>-Denbora-lerroaren irudikapena. |

| | | |
|---|---|---|
| ❖ Irakasleak, ikasleak kokatu daitezen, gelan denbora-lerroa egitea komeni da; bertan, Lehen eta Bigarren Mundu gerrak, Espainiako 36ko gerra eta orain bizi dugun urtea kokatuko ditu besteak beste. Ikasle bakoitzak denbora-lerro hori oinarri hartuta berea egin dezake, bere familiako kideen (guraso, aitona-amonak...) jaiotza-datak gehituz.<br><br>❖ *Manexek ez daki zer den gerra zibila* entzungaia entzungo dute eta hari buruzko solasaldia antolatuko da gelan. Nahi izanez gero, solasaldiaren bukaeran marrazki bat egin daiteke.<br>Hona hemen audioaren esteka:<br>https://etxegiroan.eus/eu/audioak/literatura-euskaraz/manexek-ez-daki-zer-den-gerra-zibila<br><br>**2. jarduera**<br>Ingeleseko arloan, Sadako pertsonaiaren kontakizunean oinarrituta, ikasleek paperezko txoriak egingo dituzte origami-teknika erabiliz (instrukzio testua). Horretaz gain, bonba atomikoari buruzko solasaldia egingo da.<br><br>**3. jarduera**<br>Proiektu hasieran banatutako *Sadako eta paperezko mila kurrioloak* liburuari buruzko tertulia literarioa egingo da. Hori egiteko dinamika hau proposatzen da:<br><br>**TERTULIA LITERARIOA:** *Sadako eta paperezko mila kurrioloak* | | |

Solasaldian jorratu daitezkeen gaiak hauek izan daitezke:

- Sadako:
  - Nor izan zen eta Japonian dioten miresmena azaldu.
  - Sinboloak zer diren eta zertarako balio duten hitz egin.
- Hiroshima eta Nagashaki.
- Bonba atomikoa eta bonba arrunta:
  - Euren arteko desberdintasunak atera.
  - Erradioaktibitatea azaldu.
  - Erradioaktibitateak sortzen dituen gaixotasunak aipatu (minbizia eta malformazioak) eta noiz ager daitezkeen (Sadakoren kasua) komentatu.
- Erradioaktibitatea eta erradioterapia:
  - Haien erabilerak aztertu.
- Energia nuklearra:
  - Aldeko eta kontrako iritziak eman.
  - Txernobylen eta Fukushimaren kasuak aztertu.
- Itxaropena eta herri-sinesmena:
  - Kurriolo guztiak egin izan balitu Sadako sendatuko zela uste duzue? Eta berak sinesten du hori? Zergatik egiten ditu?

Horrez gain, *Issun Bôshi: el niño que no era mucho más alto que un pulgar* liburua irakurriko zaie, eta horri buruz hitz egingo da.

COERR, Eleanor (1997).*Sadako eta paperezko mila kurrioloak.* Bizkaia: Aizkorri.

| | | |
|---|---|---|
| ICINORI (2014). *Issun Bôshi: el niño que no era mucho más alto que un pulgar* . Caracas: Ekaré. | | |
| BEDERATZIGARREN KAPITULUA: DORTOKEN GAUA<br><br>**1. jarduera**<br>Irakasleak kapitulu osoa irakurri ostean, aurkikuntzei buruzko lanketa egingo dute. Lehenengo, etxetik ekarriko dituzte paperean idatzita, euren ustez, zeintzuk izan daitezkeen gerra ondorengo aurkikuntzak edota asmakizunak. Hori egin eta gero, gelan talde handian denon ekarpenak partekatuko dira. Azkenik horiekin, horma-irudia egingo da: *Gerra ondorengo asmakizunak*.<br><br>**2. jarduera**<br>Dortoken errunaldiari buruzko ulermen-testua egingo da (*Ikaslearen liburuxka*ko 31. eta 32. or.).<br>Ulermen-fitxan, irakurri ondorengo azken atala egiteko, hausnarketa eta ondorioa, talde kooperatiboen **1-2-4 egitura** teknika erabiltzea proposatzen da.<br>TALDE KOOPERATIBOENTZAKO TEKNIKAK.<br><br>**ITSAS DORTOKA**<br>Dortoka asko uretan bizi dira; ingurune horretan oskola ez da hain zama astuna: uretan lehorrean baino askoz arinagoa da. | - Aktiboki entzuten ahalegintzen da.<br><br>- Eskatutako informazioa bilatzen saiatu da.<br><br>- Ekarritako informazioa taldean partekatzen du eta besteenak entzuten, onartzen eta errespetatzen ditu.<br><br>- Horma-irudia egiterakoan gogotsu parte hartu du.<br><br>- Dortoken errunaldiari buruzko testua ulertu du.<br><br>-Ulermen-testuaren hausnarketa kritikoa egin du eta inguruneko arazo ekosozialez jabetu da. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia:<br>BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- Ahozko jardunen behaketa txantiloia:<br>AHOZKO JARDUNAREN BEHAKETA<br><br>- Gerra ondorengo asmakizunen horma-irudia.<br><br>- Ikaslearen liburuxkako 31. eta 32. orrialdeetako fitxen zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka. |

| | | |
|---|---|---|
| Horregatik, ulertzekoa da, dortoka guztietan handiena uretakoa dela. “Laute dortoka” da, 800 kg-rekin eta 2,5 m-ko luzerarekin, guztien artean gehien pisatzen duena. Itsas zabalean bizi da eta marmokak bakarrik jaten ditu. Itsas dortoka guztiek bezala, Laute dortokak ere lehorrera etorri beharra dauka arrautzak errutera. Segur aski telebistako dokumentalen batean ikusiko zenuen dortoka berde handiren bat 200 kiloko gorputza astiro-astiro hondartzan zehar garraiatzen eta zulo bat egiten arrautzak hondarpean sartuta uzteko. Dortoka kumeak, jaio bezain laster, itsasorantz abiatzen dira ahalik azkarren. Iristen badira, 120 bat urte bizitzeko aukera izango dute. Dortoka batzuk (dortoka berdea kasu) oraindik ere ehizatzen ditu gizakiak, dortoka-zopa ospetsua egiteko.<br>WARNAU, Geneviève (2004). *Nire entziklopedia ANIMALIAK.* Donostia: TTARTTALO (139. or.)<br><br>Dortoken errunaldiari buruz gehiago sakondu nahi izanez gero, ondorengo bideoa ikus daiteke:<br>El nacimiento de la tortuga: [https://youtu.be/Hlz5b97IleA](https://youtu.be/Hlz5b97IleA) | | |

## C. AZKEN FASEA

Ikas-egoera honi bukaera emateko eta proiektua biribiltzeko, ikasleek proiektu amaierako lanak aurkeztuko dituzte; alde batetik, ingurumenarekiko hartu dituzten konpromisoak azalduko dituzte, eta, bestetik, belaontzien erakusketa antolatuko dute.

| JARDUERAK | EBALUAZIO-ADIERAZLEAK | EBALUAZIO-TRESNAK |
|---|---|---|
| **HAMARGARREN KAPITULUA: HILTZAILEAK DATOZ**<br><br>**1. jarduera**<br>Kapitulu honetan isileko ehiza eta animalia babestuen gaiak ateratzen dira. Horren lanketa bideratzeko, irakasleak bi emakumeren lana eta bizitza aurkeztuko ditu:<br><br>❖ Karmele Llano: irakasleak *Orangutanak eta ni* liburua kontatu eta argazkiak erakutsiko dizkie ikasleei. Gero, talde handian bere lanaren inguruan hausnarketa egingo da.<br><br>LLANO, Karmele (2021). *Orangutanak eta ni.* Bilbo: A FIN DE CUENTOS.<br>Orangutanen egoerari buruzko informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Borneoko bideo hau ikus daiteke: BORNEO, en busca del gran orangután, Indonesia: https://youtu.be/6x0XLN5Fn1E<br><br>❖ Jane Goodall: gaztelaniako saioan, *Yo, Jane* liburua eta *Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes* liburuko 94. orrialdea irakurriko zaie. Ondoren, *Gorilas en la niebla* filma ikusi eta solasaldia egingo dute. | - Liburuak eta bideoak aktiboki entzun ditu eta sortutako solasaldietan parte hartze arauak errespetatu ditu.<br><br>- Taldeko lanetan erantzukizunez parte hartzen du.<br><br>- Infografia egiteko talde lana planifikatzen du.<br><br>-Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak identifikatzeko gai da.<br><br>- Egin beharreko lanetan teknologia berriak era egokian aplikatzen ditu.<br><br>- Egindako lana era zuzenean aurkezten du. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia: BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- Ahozko jardunen behaketa txantiloia: AHOZKO JARDUNAREN BEHAKETA<br><br>- TALDE-LANAREN EBALUAZIOA<br><br>- *Ikaslearen liburuxka*ko 33. eta 34. fitxen zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- Egindako infografia.<br><br>- Egindako aurkezpena Canvan eta ahozko aurkezpenaren balorazioa: AHOZKO AURKEZPENAK EBALUATZEKO TXANTILOIA |

| | | |
|---|---|---|
| - MC DONELL, Patrick (2015). *Yo, Jane.* Mexico: Océano Travesía.<br>- FAVILLI, Elena y CAVALLO, Francesca (2017). *Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes.* : Editorial Planeta.<br><br>❖ Liburu horietan, emakume biek mezu bera helarazten diete irakurleei: ZER EGIN DEZAKEZU ZUK? Gelan, galdera horri erantzunez, ingurumenarekiko konpromisoak hartuko dituzte ikasleek. Lehenengo, bakarka bakoitzak zer egin dezakeen hausnartuko du eta, gero, talde handian partekatuko dira bakarkako hausnarketak, gelako konpromisoak adosteko. Adostutako konpromisoak liburuxkako 33. orrialdean idatziko dituzte, gero, Canva formatuan aurkezteko. Infografia guztien artean gehien gustatu zaiena gelan jarriko da.<br><br>Konpromisoen infografia egiteko plangintza:<br><br>LANAREN PLANGINTZA<br><br>❖ Desagertzear dauden animaliei buruzko aurkezpena egin behar dute liburuxkako 34. orrialdean. Aurkezpenak taldeka beste geletan egingo dituzte.<br><br>**2. jarduera**<br>Azken kapituluetan, liburuko protagonisten sentimendu ugari azaleratzen dira, eta komeniko litzateke horietaz hitz egitea: Kensukeren | | - Emozioen fitxa. |

| | | |
|---|---|---|
| mesfidantza, Michaelen traizioa, sentimendu kontrajarriak… Talde handian landuko da.<br><br>*Intensamente* bideoa ikusi eta galdera hauen bitartez, sentimenduak eta emozioak lantzea proposatzen da:<br><br>● Zer emozio agertzen dira bideoan?<br>● Ezagutzen al duzue beste emoziorik?<br>● Egoera baten aurrean, emozio berberak azaleratzen ditugu?<br>● Emozio onak eta txarrak al daude? Sailkatu emozio onak VS. txarrak.<br>● Zerbait ikasten al dugu emozioen bidez?<br><br>"Intensamente" Uso de las emociones<br><br>Bukatzeko, emozio desberdinak identifikatzeko, ondoren estekatuta dagoen fitxa egitea komeni da gaia biribiltzeko:<br><br>EMOZIOAK IDENTIFIKATZEN | | |
| EPILOGOA<br><br>**1. jarduera**<br>Epilogoa irakurri ondoren, Kensukek hartutako erabakiaren garrantzia eta ondorioak zeintzuk izan diren komentatuko da. Bukatzeko, galdetuko zaie liburuaren bukaera ea gustatu zaien eta beraiek nola bukatuko luketen.<br>Ahozko lanketa horretan, egitura hauek landuko dira: baldintza/ondorioa (**ba**nintz…egingo **nuke**) eta iritzia ematea (**Nire ustez**, **Nik uste dut**…). | - Ahozko komunikazioan landutako egiturak egoki erabiltzen ditu.<br><br>- Solasaldietan bere iritziak era koherentean ematen ditu eta besteenak errespetatzen ditu.<br><br>- Ikas-egoera bukaeran ikasi duena antolatzeko eta islatzeko gai da.<br><br>- Irteeran ondo pasatu du. | - Behaketa zuzena egiteko txantiloia:<br>BEHAKETA ZUZENAREN ERREGISTROA.<br><br>- Ahozko jardunen behaketa txantiloia:<br>AHOZKO JARDUNAREN BEHAKETA<br><br>- Ikaslearen liburuxkako 35. |

| | | |
|---|---|---|
| **2. jarduera**<br>Ikas-egoeraren ebaluazio orokorra egiteko ikasle bakoitzak gaiari buruz eta prozesuan zehar zer ikasi duen jakiteko liburuxkako 35. orrialdea beteko du. Bukatzeko, denen ekarpenak talde handian partekatuko dira.<br><br>Horrez gain, ikas-egoeraren diseinua eta garapena ebaluatzeko ideia-jasa (brainstorming) dinamikaren bidez jasoko dira gustuko izan diren jarduerak eta hobetu beharrekoak.<br><br>**3. jarduera**<br><br>Irteera: Bilboko Itsasadarra Itsas Museora (https://itsasmuseum.eus/)<br><br>**4. jarduera**<br>Proiektuari bukaera emateko, ikas-egoeraren balorazioa egingo da *Ikaslearen liburuxka*ko 40. orrialdean. | | orrialdeko fitxaren zuzenketa eta aurrez aurreko feedbacka.<br><br>- Bakarkako eta taldeko ebaluazioen txantiloiak:<br>AUTOEBALUAZIOA<br>TALDEAREN KOEBALUAZIOA<br><br>- *Ikaslearen liburuxka*ko 36. orrialdeko fitxaren zuzenketa eta talde handian partekatzea. |

## 2.4. METODOLOGIA

### A. PRINTZIPIOAK

Ikas-egoera honetan, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren (IDU) printzipio hauek izan ditugu kontuan:

**1. Inplikatzeko modu ugari eskaintzea.**

- Aldez aurreko ezagutzak aktibatzeko jarduerak daude.
- Bizitza errealarekin lotura duten eta sozialki garrantzitsuak diren jarduerak diseinatu dira.
- Maila anitzeko jarduerak daude, ikasleen gaitasunei egokituta.
- Zereginetan parte-hartze aktiboa bultzatzen da.
- Eztabaidetan gelako ikasle guztien inplikazioa lortu nahi da.
- Feedbacka sarritan eta une egokian emateko aukera eskaintzen da, ikasleen ahalegina, hobekuntza eta lorpena azpimarratuz.
- Jardueren artean, bakarka zein taldeka egiteko lan-proposamenak daude.
- Talde-lanetan elkarlana sustatzea ere bada helburua, ikasketa kooperatiboaren bidez.

**2. Irudikatzeko modu ugari eskaintzea.**

- Idatzizkoak ez diren testuak eta bestelako jarduerak: audioak, bideoak, manipulatzeko materiala, ozen irakurtzea.
- Era askotako metodoak eta estrategiak informazioa antolatzeko: taulak, mapak, denbora-lerroak eta egin beharreko lanen plangintza.
- Interesa pizteko fitxa erakargarriak, komunikazioa eta sormena lantzeko.
- Ikasitakoa berrikusteko jarduerak.

**3. Ekintza- eta adierazpen-modu ugari ematea.**

- Ikasleei ikasitakoa adierazteko modu ugari eskaintzen zaizkie: ahozko azalpenak, aurkezpenak, testu idatziak.
- Ikasleen autoebaluaziorako hainbat estrategia erabiltzeko aukera dago: behaketa-erregistroak, errubrikak, fitxen zuzenketa.

Irakaslearen rola prozesuaren gidaria izatea izango da, ikaslea protagonista bihurtuz.
Irakasleak konpetentziak, komunikazioa eta euskara izango ditu ardatz une oro.

### B. ANTOLAKETA

Ozen Oz proiektua aurrera eraman ahal izateko, aldez aurretik jakin behar da ekimen honek koordinazio-lan handia eta sistematikoa eskatzen duela denborak, espazioak eta saioak ondo antolatzeko. Tutorea arduratuko da koordinaziolan horretaz: batetik, tutorea irakasle-taldearekin, eta bestetik, tutorea herriko liburutegiko arduradunarekin.

Tutoreak liburu hauek eskuratu beharko ditu herriko liburutegian, liburua lantzen hasi baino hilabete lehenago:

- *Sadako eta paperezko mila kurrioloak* ikasleentzako liburu bana, Irakurlearen txokorako.
- *Kensukeren mundua* liburua, ikasleei irakurri aurretik berak irakurtzeko eta prestatzeko.
- Liburuen kutxako liburuak gelarako.

Horretaz aparte, tutoreak jarduera hauek antolatuko ditu liburua irakurtzen hasi aurretik:

- Bilboko Itsasadarra Itsas Museora irteera antolatuko du.
- Beste irakasleei jakinaraziko die noiz hasiko den proiektua lantzen, eta adostu egingo du haiekin noiz egingo dituzten dagozkien jarduerak..
- Herriko liburuzainarekin zinema-aretora joateko data adostuko du.

Ikasleen taldekatzeari dagokionez, talde heterogeneoak egitea proposatzen da, aniztasunari eta ikasteko erritmo ezberdinei erreparatuta.
Taldeetan sortutako ekoizpena talde handian partekatuko da, azken ekoizpena denona dela senti dezaten.
Talde kooperatiboen metodologia ezarriko da, taldekatze, espazio eta dinamika desberdinak erabiliz. Metodologia honi buruz informazio gehiago nahi izanez gero, hona hemen zenbait webgune interesgarriren estekak:
https://prezi.com/sflhh_46hi5o/ikasketa-kooperatiboa/
http://lankooperatiboa.blogspot.com/

Diziplinarteko ikas-egoera baten bidez egingo da lan, zeinaren jarduerak erronka errealak, esanguratsuak eta ikasleen gaitasunetara egokituak baitira. Ikas-egoera honetan, hainbat konpetentzia jartzen dira jokoan azken produktu bat lortzeko. Produktu horri zabalkundea emango zaio, eta ingurune hurbilean izango du eragina. Testuinguru horretan, atazei esker, ikasle guztiek aurrera egin ahalko dute beren konpetentzien garapenean, beren gaitasunen arabera. Horrela, hezkuntza pertsonalizatua eta inklusioa bermatuta daude.

Ikas-egoera aurrera eramateko, hiru euskarri erabiliko dira: alde batetik, irakasleak ahots gora irakurriko duen liburua (*Kensukeren mundua*); bestetik, eskuartean duzuen gida, eta, azkenik, *Ikaslearen liburuxka*. Liburuxka hori ikasleei ez zaie oso-osorik emango hasieratik. Liburua irakurri ahala, jarduerak egingo dituzte, eta liburuxka osatzen joango dira.

## C. BALIABIDEAK

Ikas-egoera honetan erabiliko diren baliabideak testuinguruaren arabera antolatu dira, baina material bizia denez, egokitzeko prestatu dira.

**Giza baliabideak**: ikasleak, irakasleak, familiak, beste zikloetako ikasleak, liburutegiko arduraduna, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoko arduraduna. Bestalde, irakasleek Markina-Xemeingo Udal Bibliotekako arduradunaren laguntza izango dute.

**Baliabide digitalak:** informatika-gelako ordenagailuak, gelako pantaila, Interneteko baliabideak (bideoak, mapa interaktiboak eta audioak) eta lanak ekoizteko aplikazioa informatikoak: Canva (infografia), Drive eta Google Docs.

**Espazioak**: ikasgela, liburutegia, patioa, zinema-aretoa, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa, informatika-gela, musika-gela.

**Materialak**:

- *Kensukeren mundua* liburua.
- *Irakaslearen gida.*
- *Ikaslearen liburuxka*: Ozen Ozeko *Kensukeren mundua* liburuan agertzen diren gaiak lantzeko prestatu da liburuxka hau. Esteka honetan dago erantsita: KENSUKEREN MUNDUA.pdf
- Liburuen kutxa: proiektua hasteaz batera, gaiaren inguruko hainbat liburu izango dituzte eskuartean, nahi dutenean erabiltzeko. Gomendatutako liburuen zerrenda hauxe da:
  - ➔ FOREMAN, Michael (2007). *Mia´s Story.* England: Walker Books Ltd.
  - ➔ BROWNE, Anthony (2012). *Gorila bat.* Iruñea: Kalandraka.
  - ➔ COERR, Eleanor (1997). *Sadako eta paperezko mila kurrioloak.* Bizkaia: Aizkorri.
  - ➔ LLANO, Karmele (2021). *Orangutanak eta ni.* Bilbo: A FIN DE CUENTOS.
  - ➔ MC DONELL, Patrick (2015). *Yo, Jane.* México: Océano Travesía.
  - ➔ FAVILLI, Elena eta CAVALLO, Francesca (2017). *Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes.* Bartzelona: Editorial Planeta.
  - ➔ ICINORI (2014). *Issun Bôshi: el niño que no era mucho más alto que un pulgar*. Caracas: Ekaré.
  - ➔ FOREMAN, Michael (2009). *El jardín feliz: una historia de esperanza.* Bartzelona: Intermón Oxfam.
  - ➔ GRINDLEY, Sally; FOREMAN, Michael (2003). *La playa de Pedro.* Bartzelona: Juventud.
  - ➔ MORPURGO, Michael; FOREMAN, Michael (2004). *El delfín de Luis.* Bartzelona: Juventud.
  - ➔ FRENCH, Jess; GILLEARD, James (2019). *Animales en peligro.* Boadilla del Monte: SM.
  - ➔ SODERGUIT, Alfredo (2020). *Los carpinchos.* Bartzelona: Ekaré.
  - ➔ PENALVA, Nuria (2018). *SOS animales amenazados.* Madril: Libsa.
